

“PRINCIPE DE VIANA”



SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento en Euskara
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea
150'gn. zenbakia

Iruña - 1983 - Iibeltz-Otsaila

Fran. conc.
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.
Príncipe de Viana
J. JOSE GRAU

Aurrera goaz

Ona berriz ere zuekin gure aldizkari apal eta saiatu au, illerokoa izan bear luken gure «PRINCIPE DE VIANA» euskalduna.



Gure Naparroa'n aldaketa aundiak izan ditugu; orrelako aldaketak ez dira beti euskararen onerako izan.

Gure urte auetan lau aldiz, beintzat, aldatu da Diputazio osoa, eta ezagunak dira euskararen aferetan ibilli diren jaunen izenak: Urmeneta, Ezponda, Iturralde ta Malon. «Príncipe de Viana» Erakundean, berriz, iru Zuzendari, bata bestearen ondotik: Uranga, Galbete, Redon; eta bitarteko utsune luzeetan, Ordekoek artu bear dute burubidea. Ez aski oraindik: aldi berean, bost aldaketa irarkola edo inprentako artu-emanetan: «Navasal», «Provincial», «Grafinasa», Lizarra'ko «Lizarra» Irarkola; ta aurtengoa, azkenik!, aipatutako «Lizarra» ori. Gauza ikusgarria izan da ortarako ainbat agintarien paper, baita penagarria ere denbora galdua. Askotan esan digute legezko epeak bear-bearrezkoak direla. Eta zenbat zailtasun izan ote dira diru eskas laguntzak jasotzekoan? Era batera naiz bestera, beti gauza bera: euskararentzat maitasunik eza. Ortik gure Aldizkari euskaldunarentzat etengabeko gurutz-bidea.



Bitartean, gure irakurle maiteak zai ta zai... Irrika bizian zai ta deika ibilli zarete irakurle euskaldun asko ta asko. Aurrerako ere zuen baitan dago gure itxaropena. Ez dezagun etsi; etorriko dira egun eta giro obeak.

Eta zer esan gure idazleen etsipena dela-ta? Idatzi albisteak, bidali idazlanak bein da berriz, eta... beti alperrik. Argitara atera ezin eta



bazterrera utzi bear, zaartu direlako; berriz ere aldizkaria gertutzen, eskatu idazleei ta guztiek zintzo aski idatzi, baiña ostera ere alperrik...

Oraingoan ere alperrik izango ote da? Ezetz uste dugu. Oztopo guzien gaiñetik, goazen aurrera!

AITA SANTUA NAPARROA'N



Joan den urtean Naparroa'n izandako gertakizun nagusia, Aita Santua'ren etorrera izan da. Bai; 1982'garrengo Azaroa'ren 6'gna. egun aundi ta gogoangarria napar geienentzat. Argazkian or ageri dira Naparroa'ko Agintariak Aita Santua agurtzen, Malon Diputadu Jauna «Ongi etorria» egiten. (PATXI argazkia).

IGAZKO GERTAKIZUNAK

Emen bilduko ditugu ere igazko gertakizunak, joan den urtean izan diren gertakizun batzuk; denak ez, oroi-garri uste dugun gauza zenbait baizik.

GOGORKERIA

Asiera emateko, garrantzi aundietako gertakizun beltzenak gogorkeriaz bizia kenduta lurrean erortzen direnen aipamena. Ez dago eskubiderik inor iltzeko; gizonak eta elkarteak ez dira nor bizia kentzeko, ta eraiketa baten ondoren erabiltzen diren arrazoi guzi-guziak, arrazoi ustel batzuk besterik ez dira.

Ala ere, arrazoi bat bakarrik ez izan arren, eguna joan eta eguna etorri, bada gure artean naiko ta geiegi odol ixurtze ta eraiketa.

Navarra

hoi

Gure artean dugu izparringi au. Bere asmoak, ez dago zalantzarik, Napparroaren alde lan egitea da. Eta ikusten dugunez ari ontatik dabil. Euskerak ere badu bere tokitxo eta asmoak ere bai omen ditu.

Onelakoetan oitura da izparringi aitatuari ongi-etorriak ematea. «Navarra Hoy» oni, nola ez, biotz-biotzetik opa diogu bide luzea izan dezan Napparroaren onerako eta Euskalerrriaren ardatz eta biotz den gure euskera zarrarentzat.

Egokia iduritu zaigu ipiñitako izena. Gaurko Napparroan sartuta egon dadin nai genuke, gure erriaren arazoan aldeko eginkizunean lotuta, eten gabeko ekinean, euskal maitasunean.

LUR-IKARAK

Lur ikarak edo terremotoak izan genituen urtean zear bein baiño geiagotan; Jainkoari esker ez direla izan indar aundikoak, zenbait lurraldetan gertatu oi den bezala; ala ere, bildurra zabaldu zen nappar askoren biotzetan, batez ere Ekaina'n izan genuenean.

BAKOITZARI BERE

«Aezkoa» izeneko mendia «aietzen» eskuetara itzulia izan da, arrazoizkoa zen bezala, ainbeste urtez eta arrazoirik gabe izana bait da Estadauaren pean. Gertaera onekin, inguru artako lagun denentzat ongi etorriko da, aberastasuna beti ongi etortzen bait da, jator eta zuzen erabiltzen denean.

EUSKAL ERRIKO LEIOA

FUEROEN «OBEKUNTZA»

Madril'go agintariekin luzaroan ar-emanetan ibilli ondoren, gure Lege Zar edo Fueroak aztertuak izan dira eta batzuen ustetan «obetu» ere; auetxek esan dutenez «olako ar-emanak onuragarriak izan dira eskubide batzuk gureganatu direlako». Baiñan, badira beste batzuk ortara ez datozenak, eta ez dute onartzen, oiñarriari begiratu, Napparroaren beti-betiko eskubideen sorrera bear bezala mugatuta gelditu ez ote den.

EZ-BERRAK ERE EZ DIRA GUTXI IZAN

Bide bazterretan automobil edo berebillak egunero dakarzkigu eriotzen berri samiñak; eta uda garaian, piztina edo ur-putzuetan eta ibaietan igaritara joan direnak izan dira betirako galdutakoak; eta baita mendi goienetan ere ildakoak.

Noain'en, avioiez edo egazkiñez ibilaldi bat ematera atera eta bi gazte illak ere izan ziren Sanfermiñetako egunetan.

Eta ez dugu aztu bear Ansoain'en «Copeleche» lantokian, ontzi aundi bat lertu, langille bat zaurituta oroz gelditu zela.

GEROAGO ETA LAPUR GEIAGO

Lapurretak ere izan dira bat baiño geiago; asi Diru-etxeetatik eta Iruña'ko Eliz Nagusi edo Catedral zear, Ilunberri'ko elizatxo batean egindako lapurketak ez dira aztutzekoak.

Aralar mendian dagon Santutegitik ebasketa ikaragarriari buruz, Jainkoari esker, Frantzia'n eta Italia'n barna lapurrak igesi ibilli ondoren, berriz eskuratu ta Iruña'ko Goi-Apezpikuari itzuliak izan dira Aralar'etik lapurtutako ia geuia.

Eredu izana den emazteki bat

GRACE KELLY

IL ZEN

MONACO'N



Zine askotan agertu zen emakume apain eta ederra, Monaco'ra ezkondu zen bertako «errege» Rainiero'rekin.

Delako «artista» edo antzekoen artean eta beste aundizkien artean gertatu oi dira milla nabarmenkeri, askotan gizakiarentzat lotsagarriak. Baiña Grace Kelly au beti zintzo ta garbi agertu izan da. Ez du meritu txikia.

Eta orain illabete batzuk, ez-bearrez il zen: berebilla maldan beera amildu ta illik gelditu. Arriturik eta naigabetuta mintzatu dira mundu guztiko albistariak.

Aberastasunak emen utzi ditu. On egiñak, berriz, berekin izango ditu. Onela aitortu zuen berak bein: «Norbait ona, pertsona ona naizelako jendea nitaz gogoratzea nai nuke».

«EUSKAL TELEBISTA» SORTU DA

Euskaldunak bearrezkoa du euskera, euskaldun izango ba'da. Eta euskera, itz egiteko, entzuteko, idazteko ta gauza guztietarako bear du; eta guztietan erabilli bear du.

Orain arte beti gazteleraz entzuten genituen, bai España'ko «telebisioak» eta bai Naparroa'koak esanak. Noiz arte?

Gabonilla'ren 31'an, Urte-Zaar gauean, «Euskal Telebista» izenekoa asi zen lenengo aldiz Euskeraz itz egiten. Zori onean!

Urte-Zaar gauean jaio zela esan bear dugu. Toki batzuetan ongi ikusi zuten, besteetan ezin. Baiña asi da. Urtarrila'ren 17'tik zabalzen ditu emankizun geiago. Oraindik, ordea, saiaketak eta probak egiten ari dira.

«Euskal Telebista» edo obeki esanik, «Euskal Ikustirratia» benetan gauza aundia ta onuragarria izango dugu, burutsuki ta ongi egiten ba'dute.

Jaiotzan edo sorreran, batzuek beren agurra egin ondoren, Euskalerra'ko Lendakaria den Garaikoetxea'tar Karlos jaunak egin zuen bere mintzaldia, lenengo euskeraz eta gero erderaz.

Orduan asiera ta geroz egunero ari da bere saioak ematen, gutxi gorabeera onela: Agurra edo aurkezpena, «Espazio-zaiñak» naiz beste batzuk, baiña geienetan «Marrakzi bizidunak», «pelikula» laburren bat, urrena «GAUR EGUN» eguneko gertakizunen albistea emanetz eta gero amaiera.

Egunean bitan ematen ari dira. Arratsaldeko 8'tatik amarrak arte ematen dutena, urrengo egunean berriz ikus lezake euskaldunak eguerdiko amabietatik ordubietara. Oraindik ere ikasten eta gertutzen ari dira.

Sortu da Euskal Ikustirratia edo Telebista. Betor zori onean. Gai egokiak ez-ezik, euskera bizi ta atsegiñean ematen jakingo al dute! Euskaldunen balarrietarako oso erraz eta atsegiña gertatzen ez ba'da, tamalez, baiña bereala, erdal telebista ikusten jarraituko dute askok eta askok.

GARES'KO BURNI-ZUBIA URETARA

Gares edo Puente la Reina'ko burnizko zubia uretara joan zitzagun –esan digutenez– zaartzaroak eraginta edo; baiña esan bear dugu ez zela gizon batzuk baiño ain urtetsu; burnizkoa izan ere, bera ere beera erori.

Baiña berealaxe oker aundi ori zuzendu da beste zubi berri bat egiñez gero. Eriotza ez beste, gauzak izaten bai dute, batera edo bestera, zuzentzerik.

KATALANERA, UNIBERSIDADEAN SARTZEKO BEARREZKOA

Ikastetxe Nagusi edo Unibersidadean goi-ikasketak egitera sartu aal izateko, gertuera berezia bear du edonork; au da, azterketa batzuetan azaldu bear du bakoitzak bere jakite ta gertueraren mailla.

Eta orra or Katalunia'ko Unibersidadeetan ikastera sartu aal izateko, katalanera edo bertako izkuntza jakin bear du aurrerakoan. Unibersidadeetan ez-ezik, mailla beretsuko ikastetxeetan sartzeko ere, azter-gaietako bat, katalanera jakitea izango da. Alaxe erabaki

du Madril'go Gubernuak, Felipe Gonzalez buru duela.

DIRUA IRABAZTEKO ASMAKIZUNA

Rusia'n bezala komunixtak nagusi diren bazter guztietan, askatasun-eza ta gogorkeria nagusitzen direla ongi ikasiak gaude. Ori ala izanik, Rusia'n gizon jakintsu asko daude era bat bazterturik, aurrez gaxo-etxe berezietan «lavado de cerebro» edo zentzu-aldaketa egintakoak. Gauzak orrela direla, komunist-lurralde batetik iges egindako bat Itali'n bizi da, ta jakin berak zer asmatu ta aurrera eramane duen: Lendabizi, izen zerrenda aundi baten jabe egin zen, Rusia'n «zentzu-aldaketa» egiñak direnen izen zerrenda luzea, ta oiei ondoren astero-astero karta edo eskutitzak bialtzen ibilli; baiña eskutitz guziak, zertifikatuta eta aseguratuta bialtzen zituen, orrela bidean galtzearrinxkurik ez izateko; ta gertatuko ba'litz, bialdutakoan eskuetara ez irixtea, orduan aseguratutako neurrian ordaindu bearra izaten da legeak erabakitako eran. Ta badakigu lurralde oietako agintariak, askatasuna dagon errietako berririk zabaltzerik nai izaten ez dutela, ta orrengatik, emendik bialdutako karta edo eskutitzak beti «galdu» (?) egiten dira.

Ta Rusia bera ere mundu zabaleko elkarte nagusi batean sartuta dagoalako, elkarte orren aginduak betetzera beartua arkitzen da; ta mundu guziko elkarte orrek beartzen du, bialdutakoan eskuetara irixten ez diren eskutitzak «galdu» diralako, bialtzalteei ordaindu bearra, aseguratutako neurrian.

Orrela, Itali'tik eskutitzak Rusia'ra bialtzen sayatu denak astero-astero bere seguro-ordaña jasotzen zuen, eta urtean buruan, igazko urtean, milloi pezetatik gora jaso ditu. ¡Ez da asmakizun txarra!

Zorionak kataluniarrei. Eta ea guk noiz lortzen dugun beste orrenbeste.

IRUÑA'KO APEZPIKU IZANA, SUTAN GRANADA'N

Granada'ko apezpiku-etxea, aspaldiko jauregi eder bat da: XIX'gn mendekoa. Alboan dauka beste jauregi bat XVII'gn. mendekoa, lan-gela ta agiritegiz beteak. Goiz batean su artu zuten zati batzuk kiskaltzeraino.

Antxe bizi da Mendez Asensio jauna, leenago Iruña'ko Apezpiku izana. Larritu ziren guztiak eta gutxiena ez Apezpikua; zauriturik gertatu zen, gairiñera, gauza aundirik ez ba'zuen ere. Beste bost lagun ere zauritu ziren, bostak su-itzaltzailleak.

Antziñako ageri, liburu ta orri asko dira erreak, eta beraz betirako galduak. Nork neurtu galera oiek guztiak?

ON IÑAKI AZPIAZU, «CLERO VASCO» DEITUTAKOAREN APAIZ BAT

Aita Iñaki Azpiazu, joan den Urtarrila'n omendua izan zen.

Azpeitia'n jaio zen 1910 garreneko Otsailla'ren 1'goan; 1933'garrenean apaiz egin zen. Mateo Mújika zenaren eskuz.

Guda etorri zenean pasa bear izan zituen bereak.

Aipatu dezagun, beñepein, denak eziñean, Naparroa'n egon zela aldi batean ezkutututa.

Frantzi'ra igarorik, «Gernika» zertiztan gudari taldean kapellau izan zen. Seminario de Aire Sur l'Adour irakasle izan zen ortxe 1940-44 bitartean. Emen

idatzi zuen «Examen de conscience pour les futurs prêtres»; 1947' garrean urak bitarteko jarri zituen, Arjentina'ra joanik.

Orretaz gaiñera liburuak idaztera ekin zion, batez ere emen guda artean egin izan ziren billaukeri eta okerkeriak salatzen. Arjentina'ko Gobernuak izendatu zuen ango espetxeak bisitazeko ta okerrak zuzentzeko.

Lan guzti-guztioengandik omendua izan da joandako Urtarrila'n, Azpeiti'n. Guk ere biotzez egin nai genioke gure omena. Zoritxarrez, ez dira atera ugari onelako gizonak eta azaltzen direnean esker onekoa izatea da bere oroipena ta goraltzea egitez.

Artu bitza gure oroitza eta esker ona, Aita Iñaki Azpiazu goralgarriak.

EUSKALDUN APEZPIKU BERRI BAT

Laboa'tar Jose Sebastian jauna, Gipuzkoa'ko Pasaia'n jaioa 1923'an, eta apaiz egiñik, beti Erroma'n bizi izan da. Orain Apezpiku egitea erabaki du Aita Santuak. Ain zuzen ere Urtarrilla'ren 6'an, Errege egunez, Erroma'n bertan sagaratu zuen Juan Paulo II'gnak. Pozik dira Pasaia'n.

Emendik aurrerakoan, Panama'n izango du bere eginkizuna, Aita Santuaren Ordezkari edo «Nuntzio» izendaturik bai-dago. Elizari ta Panama'ko erriari serbitzu leial egiten, ez du lan erraza izango.

LUIS MORONDO MUSIKALARIA

Iruña'n Urtarrila'ren 26'garrean, il zaigu, Garestarra zen au da Puente la Reina'n jaioa.

Gaztetatik zuen joera musikarako; 19 urte zituen Castro Urdiales'eko abes-

ORAINGO PRINCIPE DE VIANA TA BIANA'KO UMEAK



Viana'ko umeek kartatxo bat egin zioten Felipe Printze'ari 65 aurtxoek izenpeturik, alegia etorri zedin erri napar onetara «Principe de Viana» den aldetik.

Ez zen etorri, ordea. Ain zuzen egun orretan ospatzen omen zuen bere urte betetzea. Noiz etorriko? Alako batean etorriko da, etorriko da...

«Pakeak egiñik, Karlos III Erregeak «Principe de Viana» tituloa eman zion bere biloba zen D. Karlos'i.

Bai; 1423 urtean izan zen au eta

erabaki zuen Prinzipadoa leentse-neendako bear zela izan, eta alaxe betirako, bere ondorengo Naparroako Erregenetan, leendasunaren aitzakiaz.

tatza zuzentzeko azterketarari azaldu eta irabazi zuen; 1939 eta 1945 bitartean «Iruñatar Abesbatza»'n zuzendaribigarren izan zen, eta 1940 garrean Iruña'ko «Orquesta de Cámara» sortu zuen eta 1946'garrean «Coral de Cámara» deritzana.

Luis Morondo guztiz lotua zegoen gure gauzekin, ta beti bere jardunaldiak bukatzeko «Agur Jaunak» musikalaz erabilli zuen.

Bukatu nai ditugu lerro auk, bera ain zalea zen «Agur Jaunak» abestia eskeiñiz.

«EL MERCADO DE ELIZONDO»

Izen au duen lauki margoztua eresia du Iruña'ko Udal-etxeak. Udal Jakintza Batzordea ibilli da erosketa au egin naiean.

Eta alaxe, Elena Goñi Ayestarán, bere jabeak ontzat eman du salketa au egitea, ain zuzen bost milloi pezetan.

«El Mercado de Elizondo» Ziga margolariak egiña zen. Zenbait margozte aurreragilleak ez zuten bere izakera aldatu, eta ikusmira zuzena zuen margozterakoan. Galerazi ez ziona margolari trebe ta jatorra izateko.



Kanpoan ezagun gaitzaten «FITUR 83»: TURISMOZALEAK

Turismoa dela-ta oraindik orain antolatu zuten Madril'en zabal-kunde berezi bat, eta Naparroa'ko zabalkundea egitekoan, gure Diputazio'ko agintariak saiatu ziren gure egoeraen berri ematen. Madril'go jende asko izan zen gure agerpena ikusten.

Diru geiegi alperrik bota gabe, gure Diputazioak egoki azaldu du Naparroa'ren berezitasuna: Baztan eta Belagua'ko bazter ikusgarriak, Burgete edo Aurtiz'ko ta Urbasa'ko oian ederrak, Mailloak, Bardeak eta beste zenbait leku eder.

Naparroa'ko euskal-dantzak ere azaldu ziren: Zanpantzar, Luzaide'ko dantzak, Lizarra'koak eta geiago ere bai.

Naparroa'ren antziñako kristautasuna ere ederki ageri zen argazki ederretan: Irantzu, Leire, Iratxe, Uxue, Orreaga ta beste eliza ta eraikuntza bikaiñetan.

Gaztelu zaarrak ere bai, noski: Xabier, Erri-berri, Arazuri, Marzilla, Iruña'ko gudalekuak e.a. ere bai.

Aurkezpena egitean, an ibilli ziren Juan Manuel Arza, Diputazio'ko lendakaria ta Jesus Bueno Asin diputadua. Esan bearrekoa da, Felipe Gonzalez, Madril'go Gobernuko lendakaria ere agertu zela agerpena ikustera, ta gure agintariekin batean, arreta bereziz ikustatu zuen Naparroa'ko erakusketa.

Gizentasuna

MEDIKU ZAARRA

Azkeneko azterketak diotenez, gure artean ikusten ditugun gizen asko, txikitan geiegi jateagatik sortuak ditugu; eta, bein gizen-durik gizon eldura iritxitakoan, oso zailla izaten da egoera ortatik ateratzea.

Gizenak direnentzat, dieta edo jan-neurri itz ori aipatzea, aztikeri edo sorginkerizko itza bezalakoxea da. Aur txikiak maitasun ipui bat entzuteko zorutzen jartzen diren bezala, gizonak ere berdin-berdin zorutzen jartzen dira meetzeko dieta edo jan-neurri bat aipatu bezain laster.

Gai au, aur txikien maitasun-ipuiekin lotzeak badu alako kidetasun bat; geienean, meetzeko dieta edo jan-neurri oiek ere, utsean edo gelditzen bait dira, aurtxoan maitasun-ipuiak bezala; itxaropenetan bakarrik.

Itz gutxitan, esan genezake, gure arteko gizenek askotan gure amen erruz bereganatua daukatela gizentze ori; txikitan, aur zirela, geiegi jan-erazi ondoren datorkietena. Eta txarrena au dugu: zail-zailla izaten dela gero, erdi-neurri betera itzultzea; ba, alegiñak egiñez, luzaroan jan-neurri estutan saiatuta, ta askotan gorriak ikusirik, kilo batzuk galdu arren, berriz egunetik egunera gizenduz, len galdutako koipe guztiak berriz bereganatzen dituztelako.

Gure amengatik era ortaz mintzatzea, salakuntza zorrotz bat egitea dela agerian dago, gauzak orrela bait dira. Gure amek jakingo ba'luteke gure aziketa, gure azkuntzako jokabideak nolakoak bear luteken izan, orrenbeste gizakume lodi ta osasun gutxikoen orde, gizaseme lirain, egoki ta osasuntsuagoak aziko lirake; ta gizen oiek ez luteke lotsati ibilli bear munduan zear.

* * *

Azkeneko urteetan, gizentasunaren azterketak egiterakoan, arratoiak erabiliak izan dira. Arratoi-kumeren bitartez jakin aal izan da, txikitan geiegi jateak,



azi ta eldutakoa, zein ondoren txar ekartzen dituen. Ori argi ta garbi azaltzeko, onelako saioak egin dira: jaio-berri ziren lau arratoi-kume, arratoi-ama bateri ezarri zizkioten, titia artuz azten joan zitezen; eta, une berean, beste aldetik, beste arratoi-ama bateri 22 arratoi-kume ezarri zizkioten, titia artuz azten joateko; eta, jakiña, arratoi-ama batek 12 titi bakarrik izanik, 22 arratoi-kumeentzat gutxiegi izaki. Eta or ziren kome-riak!; ba, 22 arratoi-kume aiek an ibilli ziren txanda artu eziñik, beren gosea ase nai eta eziñean; bitartean, zeuden patxaran beste 4 arratoi-kume aiek arratoi-amaren 12 titiren aurrean, zurrupatu ta zurrupatu, nai baiño aukera obean, bein da berriz ase ta ase, naiko ta geiegi esne artuz.

Nabarmen ikusi zen 4 arratoi-kumeak gizendurik aurkitzen zirela, eta beste 22'ak, berriz, oso flako.

Arratoi-amak antzutu ondoren, arratoi-kume denak, 26'ak elkarrekin, jan-neurri zabal eta ugari batean egon ziren, nai gaiña jan aukera eukirik; lendik gizendurik aurkitzen zirenak, gizentzen jarraitu; beste 22'ak —nais beste 4'ek bezala jateko aukera berdiña euki— ez ziren neurri berdiñean gizendu: azi, bai; baiña gizendu, ez!

Gerora, andik ogei astera, azalpeko koipe-gizenak aztertutakoan, beste 22'ak baiño kopetsuagoak zirela 4 arratoi-kumeak ikusi zen.

Aurrerago jota, ikusi zen arratoi-kume gizenak jan-neurri estu batean euki ondoren, meetu bai egiten zirela; baiñan, berriz laster gizendu ere, jan-neurri estutik aterata, naiko jaki aukera eukitakoan.

* * *

Agerpen orrek adierazten digu, arratoiekin gertatzen den bezalaxe, berdin-berdin gertatzen dela gizakumeekin ere. Au da: asieran esan bezala, txikitan gizentzeko joera artuz gero, gero jan-neurri estuan kilo mordo bat galdu arren, berriz laster gizentzeko joerara jotzen dutela, jan-neurri estu batetik atera bezain laster. Eta luzaroan, berriz gizendu gabe egon nai ba'dute, bere bizi guztian beren kidekoek baiño gutxiago janez egon bearrean aurkitzen dira. Eta, ortaz gaiñera, jakiña dugu gizen-gizenek bizia motzagoa izaten dutela; eta oiek erdi goseak egon arren, beren bizi-epea ez da luzatu egiten. Orrengatik, beste itxaropenik gabe, neurri-estu guztiak baztertuz, betiko beren jan-neurri zabalera jotzen dute.

Gauzak orrela, gizenegiak direnek, geigi estutu gabe artu bear dute beren egoera; ba, ikusirik oso zailla ta gogorra izaten dela jan-neurri estu batean bizi guztian egotea, obe erabat etsita egon, aztuz beren baitan daukaten arazoa. Eta gaiñera, meetzeko asmoa artuta, asi bai, baiñan ondoren bide erdi edo ezer lortu gabe gelditzeak sortu-erazten duen naigabe ta estualdia, egoera berri au bera okerragoa bait da, gizena izateak dakarkin kaltea baiño.



AITA SANTUA EUSKALERRIA'N

Gure Erriarekin, Loiola ta Xabier Santutegian

Euskalerrri'ko toki bitan izan da Joan Paulo II'gna, gure Aita Santua. Askok eta askok ez zuten nai; Madril aldean ere ez zuten nai, baiña Aita Santuak berak nai zuen eta egin du bere naia.

Bi euskaldun ospetsu ta mundu osoan ezagunak, bi Santu aundi diren Iñigo ta Xabier doneen jaiotetxeak, gaur Santutegi ta otoitz-etxe bihurtuak ikustera etorri da Aita Santua: LOIOLA'ra ta XABIER'era ain zuzen ere.

Bertzaldean Beloke'ko Aita Iratzeder Benedittarrak ain ongi esan digun bezala, «gure bi Saindueri zor diotegu Azaroa'ren 6'eko egun handi hori».

guziak gaistagiñak ba'giña bezala. Ain gauza diferentia esan zigun Aita Santuak itz auekin, geienak euskeraz eta indar berezi batez:

«EUSKAL-ERRIKO KRISTAU MAITE GUZIAK, baduzue nere biotzean zuen tokia. Nere dauzkat zuen poz eta miñak. Begira aurrera: ez deusik billa Jainkoa ukatuz; eutsi Esperantzari! GUZTIOI NERE AGURRIK BEROENA! PAKEA ZUEI!»

Euskalerrria'ren nortasuna argi ta garbi aitortu zuen; gure izkuntza; oitura onak; gure kristautasuna; gure erakundeak; gure sendiaren kristau-giroa; gure erriaren siñismena; gure mixiolarien kemena...

Euskal Erria'rekin egoteko etorri zen Aita Santua eta egon zen; baita euskal jendea egon zen ere Aita

Loiola'n Jaun-artu ondoren, Mezako azken otoitzaren aurrean, Lasarte ta Basarri bertsolariak bota egin zituzten beren bertsoak.

Aiek, biotzeko sendimentuz eta indarrez kantatu; Aita Santua'k berriz, nolako arretaz entzun; baita Jainkoak ere entzun ditzala.


Gaur, ona emen «Baserri»'renak:

*Eskerrak Jauna, eskerrak zuri,
iñoiz baiño sutsuago,
gaur bezelako edertasunik
izango al da geiago?
Gorputz-Animak jaso ditzagun
gero ta gero gorago;
ITXAROPENA galdu ezker
guztia galdua dago.*

*Egun andi ta berdingabea,
egun gogoangarria,
Iñazio'ren lur santu ontan
Kristo'ren ORDEZKARIA.
Berriz eskerrak eman ondoren,
au da gure eskaria:
FEDE BEROTA, SUTU DEDILLA
BERRIRO EUSKALERRIA.*

Santuarekin. Nolako dar-darrez lertu ziren biotzak aren agotik lenengo euskal itza —«Aitarek»— entzutean!

Garaikoetxea naparrari, euskaldunen Lendakariari, esan zion: «Lurralde eder onek, Polonia nere jaioterria gogorazten dit». Eta anitz eskertu zuen Aita Santuak, Diputazioak —Xabier Gaztelu ondoan— eskeiñi zion «Nafartar Urrezko Dolumiña». Baita jendearen lepoko zapi gorriak ere!



Loiola'ko Etxe Santua, San Inazio euskaldun famatuaren sorlekua; leku ederra, millaka ta millaka etorri diren erlijiosoek, Aita Santua mintzatzeko beren bizitzaz, siñismen eta aitorenaz. Eta maitasunez eldu zitzaion Euskal Erriari, bere miñez eta itxaropenez mintzatzeko ere.

Aita Santua etorri zen, Loiola'n eta Xabier Gazteluan erlijioso ta mixiolariekin mintzatzeko. Eta denbora ontan sufrimentu astunak izan dituen euskal erriarekin egoteko.

«Badakit —esan zuen— errex ez diren egunak dituzuela, bai gizarte bai siñeste gauzetan; biotzetik esaten dizuet: egiñalak egin, guziak elkartzeko ta paketzeko. Badira, ondikotz, fedegabeko eta indarkeriazko tentaldietara erortzen direnak. Nai nieke esan: beren biotz on eta sugarrak ez ditzatela nornairen eskuetan. Indarkeriak ez du ezer goratzen eta edertzen; Jainkoaren kontrakoa da, eta kalte ta gaitz aundiak egiten dizkio eta zaurituari baka-riak ez, baita zauritzaille ta iltzailleari ere, ta berari aundienak».

Bai, indarkeriaz mintzatu zen Aita Santua, indarkeriak azazkaldu duelako gure erri gaixoa, eta ez olako batzuek adierazi nai izan zuten begi okerrenez, euskaldun



Xabier'ko Gazteluan, bere dorre luzena, etxeko Semea, Gure Xabier Santua denbora guzietako Mixiolari aundiarena; onen inguruan, mixiolari asko, ta mixiolari-talde bati —berrogei ta amar edo— Mixiolari-Gurutzeak jarri zizkien Aita Santuak.

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

BERTSOLARIA

AITA X. ONAINDIA'REN BI LIBURU BERRI

Joan den Urrilla'n lareun urte Santa Teresa il zela. Orixegatik Aita Santua ere gure arteraño etorri da; lenago, Santa Teresa'ren jaiotetxea ta illobia dituen Avila'ra; geroago, beste lekutara bezala, gure Euskalerrri'ra: ez aaztu Teresa'rekin batean, egun berean, gure Loiola ta Xabier izendatu zituztela «Santu».

Asko idatzi da Avila'ko emakume aundi jakintsuaren inguruan; badu merezi ere. Eta Aita Onaindia'k bi lan aukeratu egin dizkigu Santa Teresa'ri buruz: «Egoitzak» eta «Santa Teresa». Lenengoak, aren «Las Moradas» liburu ederraren itzulpena duzu: lan bikaina, mistika arazoan daukagun ederrenetarikoa, euskera goxo, ugari ta errezean ipiña; bigarrena, ordea, aren bizitza laburra duzu; nor zen eta zer burutu zuen jakin dezazun. Biak irakurtzea merezi dutenak.

Ona A. Onaindia'k bigarrenaren sarreran ematen dizkigun zatitxu batzu:

«Teresa asko ditu eliz-egutegiak; baiña bi ditugu ospe aundikoak: Avila'koa ta Lisieux'koa. Lenengoari «Teresa» deritzaiogu, ta bigarrenari geienik «Teresatxo».

Avila'n datza aren gorpua. Eta us-teldu gabe; lareun urte igarota, aren gorputz illotza osorik dago, utsaitu ta eder. Erantzunik ez dute jakitunak, itxurazkorik, orrelako jazokuna egoki adierazi al izateko».

Ondoren, gorputzez nolakoa zen Teresa adierazten digu idazleak:

«Gorputzez sendo ta mardul ote genuen Teresa? Bai zera! Kikili-mokolo, ondoezik eta min-ontzi ibilli zitzaigun ia bizitza guztian, oian etzan egoten baiña. Txiro jantzirik ikusten zan komentuan eta zapuldian komentugintzan zebillelarik; goiz jaiki ta berandu etzan, janari urri ta exkaxa... Idazten beti, bere zeregin artean; inoiz ere ez alperkeriari emana.

Gaur ere izen aundikoa dugu Teresa:

«Sarri goratu izan dute Teresa munduko jakintsuak. Leibnitz berak aitortu bear izan zigun Teresa'ri zenbat zor zion. Teresa ta Agustin Deuna ditugu erriak maiteen dituen santuak. Zergatik ote? Beren egunkariak idatzi zituztelako ez ote? Aren «Etorkizunak» eta onen «Bizitza»'k biotzak dardaraz jarri zituzten. Orrelaxe dauzkagu gaur ere».

Artu-eman beroa izan zuen Teresa'k euskaldun jendeaz. Euskaldunek eranzun izan diote gizaldietan zear.

«Nolako jendetza bildu oi dan, aren festa-egunean batez ere, gure komentuetan: Larrea, Markiña, Begoña, Iruña ta besteetan!».

Iruña'n gaude, karmeldar irian. Beatriz Beaumont andre naparrak anitz lagundu zion Teresa'ri komentuek eraikitzen. Geroago, 1583'an, Teresa ilda urrengo urtean, Iruña'n zeuken jauregia eskeiñi ta Abendua'ren 8'an komentu berria iriki zen; ordutik gero dauzkagu karmeldar mojak gure Iruña'n.

Aita Onaindia, karmeldar eta

SANTA TERESA



Aita Onaindia

Ez da bearrik Aita Onaindia karmeldarra gure Aldizkarian auzkeztea.

Idazle, olerkari, bertsozale ta ziñezko euskaltzale delarik, ber-berak lagundu digu asieratik BERTSOLARI txoko au betetzen eta aurrera eramaten.

Aren liburu berriak ezagunaraztekoan, gure txalo beroena Aita Xanti maiteari, onen etengabeko euskal lanarengatik.

Garde'tar M.

euskaldunak, emakume ain garrantzi aundikoari, bere lan aletxo eskeiñi nai izan du urte berezi ortan: lareun urteren buruan. Egokiz, izan ere, gure izkuntza nolabait erdikide izatea Santa Teresa'ren omenez ospatu diren jaietan.

X. X.

Gora Zu, Ama Teresa

Go-ra zu, A-ma Te-re-sa,
Jainko maite-le aur-di-a,
guretzat ere-du bikain
ta I-ra-kas-le ar-gi-a.

- 2 - Maitasun-billa zinan zu ibilli gaztetxotarik; baña zure biotz ori. ezin ase Kristo'k baizik.
- 3 - Au zan zure nai gartsua: Jainko-Gizona maitatu, Elizari lagundu-ta animak Jainkoaganatu.
- 4 - Andra Maria'ren maitez zenbat nekatu zeran zu! Aren Karmel'go maastia lore berriz jantzi dezu.
- 5 - Otoitza zan egunero zure gogoko jarduna; otoitzak zizun indartu jainkoren maitetasuna.
- 6 - Ura, bai, ura ederra Alba'n zure eriotza! Maitearen zoragarri, maitez lerturik biotza...
- 7 - Orain betiko doatsu an goian zeran, Teresa; arren, begira iguzu ta eman zure babesa.
- 8 - Izan gaitzela beti Elizaren serbitzari, Jaunaren maitale sutsu t'Aren aintzaren kantari.

Amen.

BI-ZUBI

Pello Errota

EGI'AR BI

Pello Errota izanen da noski Euskalerrri'ko plazetan geiena kantatu duen bertsolaria. Gazte-gazterik asi zen bertsoan, eta ia irurogei urteen luzaroan Euskalerrri'ko aldizkari (errebista) ta izparringi (periodiku) guztiek aipatzen dute Pello Errota eten gabe, errietako pesta ta jai-egunen berri ematerakoan. Bazter guztietatik dei egiten zitzaionean, izango zen zerbati bereizia Asteasu'ko erroteria!

Asteasu'n jaioa zen Pello Errota, 1840'garren urteko Abendua'n. Amaitu-berria zen Karlisten aurreneko Gudua, ta sendatu gabe zeuzkan Euskalerrria'k oraindik borroka zipotz arek idiki zizkion zauriak.

Pedro Jose jarri zioten izen gure bertsolariari. Abizenak, berriz, Elizegi Maiz zituen. Aita, antxe bertan dagon Larraul'goa zen; eta ama, Sorabilla'koa: ez au ere, urrutikoa, Andoain'en ondo-ondokoa.

Pello Errota'k bi senide -Juan Krutz eta Xabina- bertsolariak izan zituen, eta bere ondorengoan artean ere izan da bertsolari bat baiño geiago. Iñoz ez, ordea, bere

tamañukorik. Eta ez da arritzeko, Euskalerrri'ko bertsolariarik aundienetakoa izan bait zen Pello Erroteria.

Ameriketean ere izan zen 1895 garren urtean, bere bertsoekin ango euskaldunak alaitzera joana. Emeretzi urte leenago, Elizondo'ko Euskal-Jaietan, bera eta Joxebernardo Otaño izan ziren erriari atsegiñen izan zitzaizkion bertsolariak. Ala ta guztiz, eskolarik ez zuen izan, eta bere alaba Mikela'k idazten zizkion bertso-paperak. Aita Zabala'k dionez, oraindik ederki oroitzen omen zituen onek, 94 urterekin, laurogei urte leenago idatzitako bertsoak. Orrelako oroimena izan oi dute bertsoetarako gure errietako jendeek. (Pello Errota'ren berri jakin nai ba'duzu, libururik onena, «AUSPOA» BILDUMAN Aita Zabala'rena duzu).

Gure Euskalerrri ontan «bertsolariarik» izan ba'da, Pello Errota izan da «bertsolari», beste iñoz ez bezala izan bait zen bera bertsolariak bearrezkoak dituen doai guztien jabe. Orregatik maite izan zuen erriak.

Pello'ren aberastasunik aundienak irudimenaren azkartasuna ta ziri-sartzeko trebetasuna izan ziren.

Azkarra, tximista bezain azkarra, karlisten denborako «zizpa» aiek botatzen zituzten balak azkarragoa zen Pello. Kontrarioek bertsoaren erdia esan orduko, pentsatua zeukan berak erantzuna. Ta azkartasun ori arras atsegin izan oi zaio gure erriari. Gauzak azkar ez ezè, sendo ta bikain esaten ere ederki bait zekien Pello'k.

Gorputzez ere ezin geldi egon diren oietakoa omen zen. Txikia, baiña bizkorra; koipe gutxikoa; kirioz (nerbioz) betea. Era berean, umore onekoa, lagunarte gozoko gizona. Baiña, bildurgarria beti, ziri zorrotza etsaien-biotz-erdiraiño sartzeko iñoz ez bezalakoa bait zen!

Bi gauza auek ditu bear-bearrezkoak bertsolari batek erriagandik aipu ona jasotzeko: bizkortasuna, ta eztena; bat-batean erantzuteko ta ziria gogor sartzeko yayotasuna. Bi gauza oiek, beste bertsolari guztiek baiño neurri aundiagoan izan zituen Pello Errota'k.

«Puntuak» ere txukun eratzen zituen, Xenpelar'ek idiki zuen bidetik

Fede sendoko gizona izan genduen, gaiñera, Asteasu'ko Pello Errotaria. Ona bere azkeneko bertsoa, il baiño leentxeago botea:

**Au esango dizutet azken-azkenean,
zer egin bear dezuten iltzen naizenean:
errosario bat esan nere izenean,
zerura joan dedin Pello zuzenean.**



Pello Errota 1915'gn. urtean.



Pello Errota'ren Bertso-Berriak

Aita Zabala'ren liburutik artuak dira bertso auek. Mikela Elizegi, Pello Errota'ren alabak dionez, andregaiak gaitzetsitako mutil batek eskatuta jarri omen zituen Asteasu'koak bertso oriek. Guk, berriz, Pello Errota'ren era ta moduak nolakoak ziren

egoki adierazten dutelako aukeratu ditugu, gaurko idazlan ontarako.

Ez zuen noski mutillak arrazoirik gabe, «biderik gabe», zenik usteta, Jainkoari laguntza eskatuz onela asten du kantua:

**Jaungoikoari nago grazi baten eske;
«bertso-berri» batzuek jarri nai nituzke,
bide gabe naizenik ez det, bada, uste.
Zer gertatutzen zaidan esango det laster.**

Senargaiak, mutilla eta neska, lengusuak ziren; naparrak, gaiñera, biak, -Mikela'k

dionez- naiz biak Gipuzkoa'n bizi. Ona nola jarraitzen duen mutillak:

**Ezkontza egin nuen lengusu batekin;
bi urtean tratatu degu alkarrekin.
Itxuraz, oraindaño egondua bada fin;
baña, zer egin didan bear 'zue jakin.**

Urrango bertsoan, mutillak bera ta bere andregai uste zuena nongoak ziren, eta neskaren izena, esaten dizkigu. Aita Zabala'k izen oiek kendu egin ditu, ezkongai aien ondorengoak oraindik biziko dirala-ta,

iñorreri oiñaze-biderik ez ematearren. Nik, bertsoa betetzeko, neronek pentsatutako izen batzuk jarri ditut; izen oriek ez dira, beraz, egiazkoak.

Nerez napartarra naiz, Elizondo'koa,
andregai ustekoa ez da apartekoa;
nere lengusua da, Doneztebe'koa,
Maria Joxepa du grazi pontekoa.

Ezkontza asi genduben galaia ta damak;
bazekiten neskaxa orren aita eta amak.
Ez zan eskusarrikan: konforme ziranak
señalatu zituzten dotia ta danak.

Neskatxak urte bian itxoin nezala,
ordurako ederki prestatuko zala
dote ta arreo, bear dan bezala.

Nik baietz esan nion, egongo nintzala.

luze orren luzaroan sartu zen beste norbait,
senargaien artean, neskaren aitarengana
bitarteko bat bidaliz.

Bi urteko epe ortan, alaba ongi prestatu
nai zuelaren aitzakiarekin, bazuen -itxuraz-
neskaren aita zer ikusirik. Dena dela, asti

Urte bian franko da orrela egotea.
Irurogei ontzako izan zan dotea;
gañera, arreoa sufizientea:
nai zuela alabari oiek ematea!

Orrela zerratua genduben ezkontza
Erromati ekartzeko paperaz dispentsa;
bestela ez diteke lengusurik pasa,
ori da lenagotik usatzen dan gauza.

Paperak bialduta, aiek etortzian,
gu alkarrekin geunden ezkontzeko ustian;
gero, serpiente bat sartu da tartian!
bitarteko ta guzti damaren etxian.

Gero, tartean sartu den orren izena ema-
ten digu senargai minduak. Guk «suge gorri
zar» deituko diogu. «Biziki» omen zuen
izengoiti. Ta «Biziki» orrek ordezkari bezala

bidali zuena, berriz, andregaiaren koñadua
omen zen. Diru askoren jabe bait zen «Bi-
ziki», laster jarri zen aren alde neskaren
aita.

Suge gorri zar ori dago alarguna:
lengo emaztia ilda, nai luke laguna;
arentzat bitarteko, koñadua jauna,
emen aitatzen degun neskatxa orrena.

Alargunak eskatu dunian dama ori,
denbora gutxi barru etorri zait neri:
-«Itza emana nago lenago ni zuri;
ez noa ni artzera anka-zabal ori».

«Biziki» ori juañ zan, Erremu-gauean,
itz ematera aita ta amaren aurrean.
Lengoa utzitzeko, aita gogorrean;
ibillia du sobra itxura txarrean.

-«Aita, emen ari da esaten alperrik;
ez det nik orrelako agure bearrik».
Ez ba'zuen egiten aitañ esanik,
ez ziola emango dote-arreorik.

Mikela'k esaten duenez, «agure xar txiki-
txiki anka oker bat» omen zen «Biziki». Ala
ere, arri eman zion alaba mutillarentzat

osaba zen neskaxaren aita, naiz oraindik
arek emaztea il-berria izan.

Len berak aginduak iruroi ontzako,
ni konforme negoan utsean artzeko;
osabak kariñorik ez du neretzako:
orrek alaba nai du «Biziki»'rentzako.

Lengo emaztia ilda, illebeterako,
berri billa astia bera bada franko;
aztu zitzaion orri juandakoa pronto.
Pujatu ta kentzen du. Pegatu dit bapo!
Orrelaxe nastu du ark gure tratuba;
nere kontra da ori manifestatuba;
bera anka-zabala da, bizkarra okertuba,
nobio ederrekin ez da gustatuba.

Modu oietan oiek ibilli dirade:
osaba ni utzeko, oso zegon trebe;
faltsoa atera da Joxepa bera're;
ezkontza egin dute nere berri gabe.

Ni jakinda nengoan nola ibilli zian
Uzta'ren amaikian joan nintzan, goizian,
ia ote zegoan lenagoko itzian...
Malkoa zeriola, ezetz esan zian.

Nere aditzalleok, au gogoan gorde:
faltsoak ematen du, asko, pesalunbre;
Nere aita alaba «Biziki»'ren mende,
orain ni utzi naute ez diru ta ez andre.

Azkeneko bertsoak osabarentzat eta
emaztea kendu dio agurearentzat ditu muti-
llak. Mundúko neska guztiak bi gizon aien
mendean ez egoteak poz ematen dio. Nes-

karentzat ere, ez bait zen oraindik «Bizi-
ki»'rekin ezkontzeko elizara joana, badu
maitasunezko aolku edo kontseju bat.

Orra nik deklaratu nere iritziak;
ontara obligatu nau ni zuen faltsiak;
Zuen mende ez daude gonadun guziak;
andregaiak baditut, Jaunari graziak!
Oraindik gai zaude-ta, bertso auek entzun:
merezki ez dezunik bat apenas dezun;
zuretzako dirade, Maijoxepa ttuntun,
ondo pentsa ezazu zer egiten dezun.



Mikela Elizegi, Pello Errota'ren alaba,
1963'gn. urtean, 94 zituelarik.

AMERIKETAN

Amerikano batzuek gure aita ber-
tso-kantari aditu zuten or nunbait.
gustatu ta ara eraman zuten, Argen-
tina'ra.

Maiz eskribitzen zigun, eta ber-
tsoak kartaz bialdu oi zituan.

Guztira, amar illabete etxetik kan-
pora: aruntzean, illabete bat; onun-
tzean, beste illabete bat; eta Buenos
Aires'en, zortzi. Denbora geyago
eduki nai zuten, bañan gure aitari
apenas gustatu zitzaion ango izatea.

Askotan esaten zigun zer jende
izaten zan toki artan. Ango jendea
otz xamarra omen zan elizako gau-
zetan. Gure aita elizara joaten za-
nean, danak atzetik burlaka. Emen-
dik joanak okerrenak askotan. Bein
batean, elizara zijoala, Zizurkil'ko
emakume bat topo egin omen zuan,
da onela esan zion gure aitari:

-Nora oa?

-Elizara.

-Txoratu al zak? Ni ogei ta amar
urte ontan ez nauk elizan sartu.

Bialdutako bertso batzuk gogoan
ditut:

Jaya zebratutzen
dute arratsaldian;
lana egiten dute
eguardi artian;
gero pikardiyara
mezaren ordian.
Orra Amerika'ko
kontuak zer dian.


Ikusitzen ba'naute
sartutzen elizan,
atzetikan burlaka
txoratu al naizan...
Nik berriz korritzen det
lenagoko gisan,
baita segituko re
ez bildurrik izan.

Aitatutzen ba'det nik
konfesyiorikan,
danak ibiltzen naute
ito bearrikan;
apaizak ez daukate
ortantxe lanikan,
gutxi ikusten ditut
joaten diranikan.

Oi t'amairu urte ontan
konfesatu gabiak
Pello'k ikusi ditu
atso ta aguriak.
Zer ikasiko dute
ayen landariak?
Erremedi ditzala
guztion Jabiak!

P
E
L
L
O

E
R
R
O
T
A



"PRINCIPE DE VIANA"



SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

... VASCUENCE...
... VASCUENCE...
... VASCUENCE...
... VASCUENCE...

Biana'ko Printzea! Egun zoriontsuz,
napar erria ez zan egondu umezurtz.
Geren euskera zarra, «nafartarren izkuntz»,
zure zuzendaritzan biotzetik artuz.

Baiñan, gure etsaiak -itz onen gezurraz-
laister ziran gurean azi txar ereiñaz,
naparrak talde bitan burrukan jarriaz;
ordutik Naparroa'n eguna itzaliaz.

Zuk eskuan daukazun euskal aldizkari,
ordun gertatuaren egizko irudi:
aurrez itz onak; baiñan asmo txarrak sarri;
illeroko maite au ziguten itzali.

Berriz kalean gera betiko izateaz:
«Napar eta Euskeraren alde», maitasunaz;
etsaigoari bizkar sendoki emanaz;
Euskera zabaltzeko on prestuen lanaz.

SARITUAK ONDARRU'N

Urtarrila'k 14'gnaren «Deia»'n,
bere oiturazko zokoan irakurri
dugu Auxtin Zubikarai euskal
idazle jatorrak Ondarru'ko Eus-
kal Jokoen berri ematen diguna.

Bertan ikusi dugunez, PRIN-
CIPE DE VIANA euskal aldizka-
rian idazten oi duten bi olerkari,
Ondarroa'n sarituak izan dira:
Muniategi'tar Sabin eta «Uxo-
la» tolosarra.

Lenengo saria 150.000 pezeta-
koa zen eta Muniategi jaunak
jaso zuen; bigarrena, berriz,
100.000 pezetakoa Arriaga, Ba-
raiazarra ta «Uxola» artean ba-
natu zuten.

Zorionak eman bearrean, ar
bitzate eratzailleek eta irabatzai-
lleek, gure lankideek bereziki,
Muniategi'k eta Estanis Urruzola
«Uxola» guzian ezagunak.



UXOLA

(1883-1983)

Tolosa'ko
PEDRO ESTANISLAO ELOSEGUI
Jaunari

EUN URTE BETETZEAN

Enbor sendodun zugaitzen antzera
beren adarrak aize zabalean
eun urte osatu dituzunean,
sendia datorkizu kerizpera.

Eun adar edo urte gorputzera
enborretik zuztarra bidean,
zugaitza erroitzen danez lurrean
gu zure landarekumeak gera.

Lotuak gaude zure enborrera
ostoak beren zugaitzari antzean,
gu ostoak gera, zu enborra zera.
Ostoak bil dutenez tantaiean,
gu zure doaien biltzaile gera
zuri eskeintzeko esker betean...

UXOLA

Basa-Jaun edo Sorginak
mendiko leize beltzetan;
ohin edo tratulantak
Iruña'ko ferietan;
alfer edo edaliak
goizetik ostatietan;
emazteño nahasiak
auzoarekin kalakan...
Lehen ziren hor, debriak,
zoko-moko guzietan!

Ipar-haize edo hormak
mertxika lili denian;
gaitz aro edo galernak
idortiarekin udan;
eritasun edo minak
artzen delarik lanian;
beltzuri edo nigarrak
jende gaixoen etxetan...
Hetarik bai zer asiak,
zoko-moko guzietan!

Arrotzen harginkeriak
zut-zuta gure pentzetan,
eta leku pollitenak
betikotz itsusturikan;
Kaskoin edo Paristarrak
etxe berri horietan,
erdaraz mintzo direnak
Euskara ahantzirikan...
Zer izigarrikeriak,
zoko-moko guzietan!

Gure mutiko gaztiak
lanik gabe herrietan;
nekazarien semiak
ehunka Ameriketean.
Paris'eko Goberniak
espantuka debaldetan;
hemengo Abertzaliak
ZAZPIAK BAT ezin ukan...
Hortan gira, gaizo tresnak,
zoko-moko guzietan!

IGORTZE

Otoi, ene herritarrak,
makur horiek erdian,
segi Jaunaren legiak!
Bana gure biltzarretan,
berri ditzagun xediak
atxikitzeko gogoan
Nafarro'ko ohidurak
zoko-moko guzietan!

EUSKALERRI'KO MAKURRAK

P. Hegittoa




GAUZA BITXIAK

BIZIKLETARIK LUZEENA

Gure gizarte ontako borroka-giro illunean eta jende asko lanik gabe larri dagoen ontan ere, beti illun eta negarrez ezin egongo gera.

Orra or azgazkian gauza bat oso bitxia: bizikletarik luzeena. Amar metro ditu luzean eta bi tonelada pixuan. Ori bai, 21 aingeru oiek arintasun aundia emango diote.

Ziur aski, bide luzean ezin ibiliko ziren 21 neskatxak. Baiña... tira! Guztiak alai ta pozik ageri dira. Irriparre egizu zuk ere, irakurle. Ingalaterra'ko kontuak dira. Bizitzari ta munduko arazo larrikeri gatza ta alaitasuna ateratzen, ez dira makalak ingles oiek.



Ea noiz etortzen diren Euskalerrira. Kurpilla biko bizikleta luzeari ez ba'da ere, jendeak begiratuko

lieke neskatxa gazte argi ta irripar-tsuei...




GAUZA ZAILLAK EGITEKO, TXINOAK

Egia esan, ospe aundia dute txinarrak, batez ere gauza zailak egiten. Eta orra or argazkian zazpi txinar, zirko batean beren trebetasunak agertzen. Ezin ukatu, zinezko trebetasun bitxia bear dutela, bai orixel!, orrela ibiltzeko.

Arriskuak arrisku ta zailtasun andien artean, beñere ez omen dira erori. Txalo ta txalo jo bear diegu.

Gauza zailak egiten dituzten txinarrak, lanik aski badaukate beren lurraldea pake-giroan antolatzen. Zirkoan aiñakoxe trebetasuna opa diegu, Txina osoaren eta munduaren pakerako. Ala biz.



Agur, Rothschild!

Onela agurtu zuan «Le Monde» egunkariak Rothschild izen aundia Frantzia'ko Gobernoak izugarritzko zartakoa eman da gero: alegia ondasun geienak kendu bait dizkio Estadao'ren eskuetan jarririk.

Rothschild'arrok ta familiaren nagusi dan Guy Baron jaunak Paris'eko Rue Laffite kalean bizi ziran azken 170 urteotan, eta min izango dute etxea utzi bear izatea. Bankoetxe ta beste arazoetan 1200 langilletik gora mantentzen zituzten. Rothschild familiaren historia aspaldikoa da. Jatorria Frankfurt, Viena, Napoles eta Londres'tik zetorkion. Baiñan benetan aleman juduen leñuakoak ziran. Garrantzi aundiena Waterloo gudatearen ondotik artu zuten. Jakiña danez, an Napoleon zapaldua izan zan, ain zuzen 1815 urtearen Ekaiña'ren 19'n. Rothschild'ek ez zuan denborarik galdu. Langille ordezkotzat zeukana ta Ostende'n bizi zan Rothwort jauna Napoleon'en auzi-arbatza jakin bezin aguro itxas ontzian sartu arazi ta Londres'era bidali zuan. Lenago, ordea, Rothschild'ek Bankoan zauzkan balio-paper guztiak saldu zituan... eta gerta oi danez balioan beherapen ikaragarria eragiñez. Lur jota gelditu ziranean berriz pizkana-pizkaka erosten joan zan Napoleon'en ondamenak balio-papearak igo arazi zitalakoan. Bai asmatu ere! Eta orrela Rothschild'ek dirua eruz irabaziz... Ez da arritzeakoa aren ondorengo Jakob izenekoak 1868 urtean Paris'en Bankoetxe aundi baten jabe egin zan. Zerbaitengatik Heine olerkariak esan zuan: «Dirua Jainko eta Rothschild profeta». Jakob'en ondoren Guy billoba dator, ez besteak baño makalagoa. Askotan Estadao'k eraso zion bere aberastasunetik gutxitu naiez. Orrela 1936 urtean eta gero, De Gaulle'ren denboran ere, baiñan beti burua altxatzen zuan. Hitler eta nazitarrok azkenik Paris'etik alde egin zutenean, Guy Baron jauna Laffite kaleko etxera itzuli zan. Orduan ere Banko-etxe lanean jardun zan Rothschild Frères (Anaiak) izen pean. Aurrezki kutxa zabala iriki zuten bost frankotik emaitza txikienak artuz. Zer nai diru bilduz Soziedade indartsuetan sartu ziran: Tren-bide, Frigorifiko, meatzak Peñarroya, Rio Tinto, abar eta abar. Negozio guztiak, noski, ez zitzaizkien ondo irten. Iñoiz eroriagatik, urrengoan burua altxako zuten. Arri-olio edo petroleo iturrietan ez ziran atzean gelditu, baiñan Estadao Alegeria'ko «Antar» soziedadeaz jabetu zan, naiz bertan Rothschild'arrok bitarte ibilli.



Rothschild Barontsa Andrea eta Rothschild Jauna.

Amerika'runtz ere jo zuten irabazi billa eta an Copperweld etxeakoak ez zioten arpegi onik erakutsi esanez: «Go home, Frenchi!», «Oa etxera, prantsesa!» Bere burua erdi itorik ikusi zutularik etxeako puska, pintaketa baliotsu ta pitxiak saldu ta kito! Elkarren artean elkartzen bazekiten Rothschild'ar ziran Alain, Eli Edmond ta gañerakoak. Batasuna indarra bait da, baita kapitalistentzat ere! Guy izan zuten azken nagusi, baiñan onek bere seme David'en eskuetan, -35 urteduna- buruzagitza garaiz utzi du; eta ordezeko Nathaniel 30 urte besterik ez dituana. Biok Banka-etxe arazoei jarraitzen diote. Politika aldetik etsai asko dituztela; jabeturik daude. Konserbadore-gaullistek agintzen zeudelarik ainbesteán zebiltzan. Baiñan Mitterrand lendakaritzat aukeratua izan dan ezkeroztik ziur zeuden Rothschild Bankoak Estadaoaren esku geldituko zana... Beste arazoetatik berezi nai izan dute baiñan Gobernoak itxi dizkie bideak. Guy Baron jaunak malkoak isuri ditu alperrik. «Le Monde»'ren eritzian ez da ain errukarri. Okerragoa gerta zitzaiokean. Edmond eta Guy lengusuak landa-etxe ederren jabe dituzu. Gobernoak ez dizkiote kendu ez bataren «Chateau Laffite», ez «Chateau Mouton» Filipe Rotschild inglesaren ondasun bikañak bere masti ta ardo fiñen lurraldeak... Gañera Estadao'k kendutakoaren orde ordaiña emango die. Guy'k esan omen du: «Dirua ez da guztia; ez gaude saltzeko». Ez noski! Erosten onak izaki alajaña Rothschild'arrok! Eta jasoko duten diruatza berriz ere oñarri izango dute Rothschild Imperio berri bat eraikitzeko.

IBALAN

AAZTU-EZIÑEKO MAIXU BAT



Iruña'n ezagutu nuen. Eta ez dut beñere aaztuko berak emandako ikasgaia. Bat bakarrik, bai; baiña naikoa. Bizi bateko laburpen argia.

Bere anima irakaskuntza eta euskaran sarturik bai zegoen; eta orrela azaldu zigun nolakoa zen euskaldun irakasle baten bizia; batez ere, urte latz eta egoera larrietan: ixiltasun, umildade, kezka, gaizki-ikusia, uler-gabezia borobildua.

Ala ere, eta etsai guztien gainetik eta berea zin arturik, gure izkuntza iraun-arazi, goi-mailetaraño goratu naiean, igaro zuen bere bizia.

Gure Iñaki, urtez, etsai gogor artean bizia izan zen; gaur egun, ordea, irabazle dugu: langille zintzoak izaten bait du bere saria.

Egun artan, egun gogoangarri artan, ain zuzen 1974'ko Uztaila'n, Nafarroa'ko euskal irakasleek

—denak zutik— nola txalotu zuten gure «TXOTX» maitearen ekingta lilluragarria, aren ikasgai nagusia, ziñezko euskaldun eta fededun maixu batena: bere biziarena.

Il berri zaigu; baiñan berak bizirik iraunen du bere idaz-lanetan, bere lan oberenetan: ikasleen biotzetan. Oraindik ikasgai ederra, bere «Biotz-iturritik» bertso-liburutxoan eskeintzen diguna:

Nere Aberria maite,
biotz barruan eraman;
naigabetan artu parte,
ekin bere alde neketan.

Guk, Irakasleok, Iñaki Olabeaga'ren bizi ta lanak izan ditzagun gidari.

USOA



• ERRIZ - ERRI •

OARRA

Errietako albistari edo berri-emalleek, pozik idazten digute. Eta guk ere pozik artzen ditugu erri guztietako berriak.

Baiña... aspaldi ontan gure aldizkaria ateratzerik ez dugu izan, milla arazo ta eragozpen gertatu direlako. Beraz, barka dezaigutela adiskide oiek, beraiek bidalitako berriak, zori txarrez, zaaturik atera ba'dira. Errua ez da berri-emalleena, eta gurea ere ez.

Aurrerakoan, ziur egon, illabetero aterako da aldizkari au. Jarraitu, bada, illero zuen errietako albisteak eta berriak aspertu gabe bildaltzen. Guzien laguntza bear du, gure Naparroan, Euskara'k. Eskarrik anitz!

GARDE'TAR M.

bezala, antzez eta moldez prestatua, Lizartza'ko Kaxiano auspolariak akordiona tarteka jotzen zuela, gure belarrien atsengingarri.

Eta bazkalondoan, soiñuz, bertsoz eta dantzaz alaiturik, atsaldea jesusamen batean pasatu zen, aurtengo Abendua'n ere besteorrenbesteko bat egiteko gogo bizia uzten zigula,

Orduarte ba, beteluarrak! Aurrera beti olakoxe senitasun eta elkartasun gozoan!

«ELOSTA'KO BESTE ZOZOA»

Eguerdian, jakiñe, bazkari eder bat, Lidio erriko tabernariak, berak dakien

Mallope'tik

Xabier'ko Frantzisko Santuaren egunean, beraz joan den Abenduak 3, jai oso eder eta polit bat eratu zuten beteluarrak, delako «*El día de los auroros*» zela-ta.

Beste erri askotan bezala, bazen Betelu'ko erri polit eta atsegiñean zenbait jai egunetan, jai aundietan batez ere, egun-sentian erritar talde bat bildu, eta auzoko karrketan barrena arrosarioa esateko oitura zaarra.

Zoritxarrez, oitura au galdurik zegoen aspalditxotik; baiña joan den urtean, gauza auetaz kezkatu zebiltzen erritar batzuek, Patxi Urrizalki buru zutela, illik zegoen oitura piztuaztea eta ernaberritzea erabaki zuten. Eta baita egin ere oso egoki eta oso ederki.

Beraz aurtengoa oraingo denboretan bigarrena izandu da jai au egiten dela. Igazkoa, oroituko zeratenez, gure «PRINCIPE DE VIANA» maite onek ekarri zigun, «*Elosta'ko zozoa*»'k idatzirik. Aurtengoa ere igazkoa bezelatsukoa izandu da: goiz-goizetik elizako ezkillak, dilin-dalan, dilindalan, jendea iratzarri, mugiazi, eta eliz-atarian bildu zuten mordoska bat, ogei ta bost bat edo. Eta iruzkia Maillioeta'ko goi-malkorrek argi gorrixta batez argitzen asi orduko, an zebillen jende taldea, zaar eta gazte, gizon ta emakume, aitagurera, agurmariaka eta kantuka arrosarioa esaten, txilintxa bat aurretik.

Bukatutakoan, berealdiko xokalate on'tzi bat, bero-beroa, goxo-goxoa, otzak artutako jendea xuxpertzeko. Amaika t'erdietan meza nagusia, erritarrek oso ongi kantatua eta jendeen biotzak sakonki ikutu zituena. Meza ondoan, erriko txistulari txikiak, aipatutako Patxi gidari zutela, eljz-atarian aritu ziren joaldi eder-eder bat ematen, jende guzia adi-adi, txoraturik zeuka-tela eta txalo beroak artzen zituztela.

Lecunberri

IRUÑA'KO LEIAKETAN LARRAUNDARRAK IRABAZI



Lecunberri'ko Abeslari gazteen Taldea, irabazle (Mena Argazkia).

Lecunberriarrak aspaldidanik musikazaleak dira. Elizan, kalean, ostatuetan, entzun daitezke abeslari, txistulari eta soñujotzale onak.

Azi onak geienetan fruitu onak ematen ditu. Gurasoek ereiten dutena, aurrengan agertzen da.

Orai dela urte bete, Diputazioak lagunduz, eta Konserbatorioko babespean, sortu zen Lecunberri'ko «*Escuela de Música*»; 90 aur ari zaizkigu, Solfeo, Txistu eta Piano ikasten. Lan orren ondorioak edozeñek ikusi dezazke gure elizan, eskoletan edo plazan. Erriak utzitako «*Eskola zarretan*» egiten da lan ori.

Erritik kanpo ateratzeko gogoaz bazuten gure aurrek. Eta orra or,

Iruña'n antolatutako Txapelketa polit bat: Eskoletako Eguberri Abesti Leiaketa.

Orra doaz gure aur abeslariak: ausardak ala trebeak? Trebeak, noski lenbiziko saria irabazi bai dute. Abeslari oberenak? Ezin esan, bañan bai, kezkek gabe, abesti oberenak: «*Oi Betlehem*» gure kantu zarra, Aita Luis Elizalde'k iru abots berdiñetako anto atua, orai dela denbora gutxi.

Len gure aurrek musika maite bazuten, orai beroaldi aundi bat artu dute. Eta lanari gogo biziagoz oraindik, lotu dira.

Lan onek ere, ondorio onak ekarriko ditu, noski. Bitartean, aurrera! Eta zorionak!

BELOKI

Baztan

Otsaila

«Kandelerero bero negue heldu da gero» «Kandelerero hotz negue gan da motz».

Erranairu horrek bizirik irauten du Baztan alde huntan eta, urtea joan eta urtea etorri, aldiero entzuten dugun ele zaharra. Hori gertatzen den edo ez ziur ezta kigu bainan noizpeinka gertatu izan dela, hori ikusia dugu. Erranairu xahar hoiak badute ikasbide.

Otsaila'k txarkeriak egiten baldin ba'itu ere gazteriak maite du zeren Inauteri aipagarriak hilabete kaxkar hunen barnean izaten baitira. Inauteak aipatu ditudanez gero, horri buruz zenbait xehetasun ager ditzadan.

Inautearen aintzineko hiru ortzegunek badituzte beren izenak eta denbora batez garrantzi handia zaukatenak. «Gizekunde», «Emakunde» eta «Orakunde». Lehenbiziko ortzegun hortan gizonek egiten omen zuten besta. Bigarren ortzeguna emazte-kientzat eta «Orakunde» eguna ororentzat, denentzat. Ohitura hoiak aspaldion joan ziren eta gaurko egunean «Orakunde» eguna bakarrik bizirik irauten du eta besta hau haurrentzat bakarrik berezia. Baztan'go eskoletako haurrak beren maixu, herriko apez eta alkatearekin «Orakunde» eguna holaxe ospatzen dute. Goizean meza. Ondotik karraketan barna haur guziak bildurik eta txistulariekin itzuli bat egiten dute eta etxez etxe puskak bildu. Txistor, zinger, arroltze, sosa eta ematen duten guzia. Biltzen dutenakin otordua egiten dute, bazkari hortan apez, maixu eta alkateak parte hartzen dutela. Lehenagoko denboretan mutikoak bakarrik bazkaltzen zuten, bainan orain neskatikoak ere hor izaten dira. Arratsaldean haurren besta. Ospakizun aipagarriena oilarraren jokoa izaten da. Oilar bat ezartzen dute plaza buruan; lauze bat kendu eta zilo bat eginik oila hau han sartu eta lurrez estali eta bu-bura bakarrik agertzen zaiola. Mutiko pila bat plazaren bertze muturrean, oihal batekin begiak estaltzen zituztela deusere ikusi ez dezaten, eta bakotxak zurezko ezpata eskuan. Laster egiten dute eta oilarreran burua ezpatakin ukitzen duena izango da irabaztale eta oilarra beretako. Gure haur denboran bi oilar izaten ziren mutiko talde bakotxarentzat, bainan gaurko egunean behar izaten dituzte bospasei, herria aunitz haunditu baita. Oilar jokoaren ondotik jostetak eta dantza, txistu soñuarekin baztandar dantzak erakutsiz. Eguna holaxe ospatzen da Elizondo'n eta berdin Baztan'go bertze hamalau herrietan ere.

Gero ondoko igandean Inaute hiru egunez. Gure eskualdean, Zubieta eta Ituren'go Inauteak ditugu famatuena eta erran gabe doa Lantz'ko Inauteriak ditugula Nafarroa'ko eta Euskal Herri'ko ospetsuenak. Beti ere gure Baztan alde hontan ere ospatzen dira Inauteak, ez behar ba'da duela hirurogei urte bezalakoak bai ba'da bestaren seiñalea. Arizkun'go herrian berpiztu dute lehenagoko ohitura zaharra. Hartzaz jantzitako mutil bat bere hartza-zainarekin eta kate lodi batekin loturik, hor ibiltzen dute karraketan dena oihu eta orro jendea iziarazten Baztan'go dantzak ere erakusten dituzte, mutildantza, sagar-dantza, soka-dantza eta

gehiago ere. Aipatu dudan sagar-dantza hori mutilek dantzatzen dute eta hor aritzen dira karraketan dantzatuz, puskak biltzen dituzten bizkitartean. Gero mozorroak dena espantu eta jauzi. Holaxe hiru egunez eta berdin Elizondo'n eta Erratzu'n. Duela hirurogei urte eta gehiago ere mutiko guziak mozorroen gibeletik eta kanta hau errepikatzen zutela:

**Mozorro zinko mukitzu;
sobera, sobera dakizu.**

MARIANO IZETA

Goizueta

LAGUN AUNDIENETAKOARI AZKENEKO BESARKADA

Aspaldi ontan ez da PRINCIPE DE VIANA azaldu; baña joan dan udan, Goizuta'ko erriantzat oroi-garria izan zen egun bat: Apezetxea Iturriate Antonio il zitzaigun eguna.

Gaur lerro batzuk bialtzen ditut, azkeneko besarkada emateko nere lagun aundienetako izanduari; eta gure Aldizkaia, PRINCIPE DE VIANA au bizi dedin...

Antonio Apezetxea, bere larogei ta lau urtekin, bizi guzian nere itxetik iru metrora aurrekaldean bizitua, eta bizi guzian bata besteari lagunduaz, beñere itz bat biño beste aserre modukorik izan gabe.

Oroitzen naiz, motiko koskorretan, nola txori-kabik arrapatzen mendiko zaparditan, nola ibiltzen giñan biek; eta onek nik baño begi obea zuen zein arbolatan edo zaparditan izango zian igertzeko; azkenen, txoririk txikienak –guk «txepetxa» deitzen ginionak ere arrapatzen zitun beren iru edo arraltzak.

Antonio'n seme zarrena erri ontako Alkate ogei urtez egondua da; beste semea –Pello apeza– Etxalar'ko Erretore; beste semea –On Ramon apeza– au ere Alman-dotz'en. Eta oien lagunak, asi Iruña'tik, Baztan'dik eta inguruko erritatik, ogei ta amar bat etorri zian elizkizunetara.

Meza eman zuen seme Erramon'ek ondo on, bere anai Pello alde batetik eta beste aldetik On Juan Apezetxea –guretzat Juanito Mientonena–, eta beste dozena bat kontzelebratzen.

Erramon'en sermoiak denari biotzak ukitu zizkigun. Esan zigun bere aitak, denak igaro bear dugun ate bat, igaro dula, eta ate artan ez



Goizueta erriko Parrokia.


dula San Pedro'k pasaportetik eskatzen; an ez dula idukitzen, listan, mundu ontan ze izandu den: aberatsa, yakintsua, edozein kategoria aundikoa; an bakar bakarrik balio dutela mundu onetan egin ditugun obra edo egiteko onak, Jaungoikoren dotriña bear bezela beteaz.

Aldareko apezaz gañera, beste ainbeste apeza yende tarten; meza entzuten, eta erriko yendez gañera, atzerritakok ere asko. Gure Antonio, berrogei urtez enkargatua izandua zen, «Electrica Urumea» Elkartasunak emen duen ur-saltan bere zentralakin, eta ingeniero ta nagusitakoak ere etorri ziren aren elizkizunetara.

–Guk errezazutako «Aitagure» denak deusen baliorik badute; uste dut zerun, barren-barrenen izein itzala. Eta oroitu nitaz, larogetik goiti ibarotako onentzat ere, laister emengo kupoa kunplitu ta orrara nitzanen txoko bat bederen nerezat gordetzen.

–Azkeneko besarkada!

XEBEINO



KIROLAK

EGUN GOGOANGARRIENA
TOLOSA'N

AIZKOLARI-APUSTURIK AUNDIENA

Tolosa'ko zezen-plaza jendez beterik eta apustu-giro- bero-be-roan, Euskalerrria'n eta munduan ere izan den apusturik aundiena. Egun gogoangarria izan zen Urta-rrilla'ren 23'gna.

Bi aizkolari ezagun eta ospe-
tsuak ditugu, Leitza'n bizi den

Mendizabal gipuzkoarra ta Minde-
gia ezkurterra. Baiña markarik
aundiena, Tolosa'n egin zuten
esandako egunean.

Guztira, 58 pago-enbor ebaki
zituen bakoitzak: 6 enbor kana
osokoak edo biran bi metro ta er-
dikoak, eta beste 52 enbor ere bai,
bakoitza kana-erdikoa edo metro
bat eta laurdenekoa.

Egia esateko, iru apustu onak
egiteko aiña lan egin bear izan
zuten. Nork pentsatu bear zuen,
gizon bakoitzak ainbesteko lana
egingo zuenik?


Jende apustuzale asko daukagu
Euskalerrria'n, aizkora-apustu asko
ikusi dituztenak. Baiña sekulan
olakorik ez du iñork egin, ez emen
eta ez mundu osoan. Iru apustu
aundi batean egitea bezala izan
zen.

Jo ta jo ari izan ziren biak. Bietan
bat bear irabazle edo garaille, ta
Mendizabal nagusitu zen. Lan osoa
egiten, au da, 58 enborrak ebaki-
tzen, 4 ordu ta 12 minutu bear izan
zituen. Aiek txaloak eta eupate-
koak, garaillearentzat! Mindegia'k
4 ordu, 29 minutu ta 35 segundo
bear izan zituen.

Mindegia'k ezin izan zuen neurri
berean jarraitu. Ala ere, azkene-
raiño ez zen gelditu. Apustua galdu
zuela ikusirik ere, aurrera jo zuen
eta 58 enborrak ebaki egin zituen.
Ori bai dela gizonki jokatzear!

Mendizabal'ek lanak amaitu zi-
tuenean, apustua galdua ikusirik,
gelditu zitekean Mindegia ere.
Baiña ez. Gizontasunak eraginda,
guztiak ebaki arte jarraitu zuen.
Batak aiña merezi ditu besteak ere
gure txalorik beroenak. Gora gure
gizon trebeak! Oraindik ere ba-da
gizontasunik Euskalerrria'n.


JESUS GAZTAÑAGA




Mendizabal garaille atera zen. Gizon-
ren sasoi! Baiña bai poza ere, lenengo
ebaki zituenean. Milloi bana peza jokatu
zuten, eta irabazleak jaso zituen, azke-
nean, bi milloi peztak. Gure «Basarri» idaz-
le ezagunak arriturrik idatzi zuena, guk ere
orixe esan bear: «aizkolari biak direla
txalotzekoak, bai lan izugarriak egin zi-
tuztelako ta bai gizontasun jatorra azaldu
zutelako».



Mindegia ere, gizon fiña agertuz, atzetik
zijoalarik, ez zen gelditu egur guzia era-
baki arte. Ori gizatasuna!



Orra or enborrak zerrenda luzean: 29
pago-enbor lerro bakoitzean. Beste orren-
besteko zerrenda falta da. Argazki ederra.
Mendizabal'ek ia ebaki ditu ondoren,
beste lerrokoak ebaki bear, aizkolari biek
enbor beraren bi erdiak ebakitzen dituz-
telarik.



BAZTANDAR M. IZETA JAUNAREKIN

Bere «nigarrez sortu nintzan» liburu berria argitara eman ez gero

Noiznai bazen garaia, Mariano Izeta gure baztandar idazle onaz zerbait erraiteko. Zerbait baiño geiago erran digu Mariano'k gure Aldizkari ontan zintzo-zintzo illero idazten, «PRINCIPE DE VIANA» agertu zenetik.

Elizondo'n sortua da, 1915'gn. urtean Izeta Yauna; beti euskaltzale, ez du berak sekulan aurpegia altxatu, ez eta denbora okerrenetan ere. Baiña, iñork ez daki, lengo ala oraingo denboretan, zein den txarrenik...

Euskal aldizkari geienek laguntzaille leiatsua izan dute Mariano; aipa ditzagun «Zeruko Argia», Baiona'ko «Herria», «Arantzazu», Diario de Navarra'k ateratzen zuen «Nafar Izkuntzaren Orria» ta «PRINCIPE DE VIANA» onen ale guzietan.

Baita Euskaltzaindia'k ere izendatu zuen bere laguntzailleen artean.

Eguneroko ogia irabazteko, lotua digu egunero M. Izeta Elizondo'ko ordulari lantegi ta dendan, gaiñerako denbora guziaz euskal kulturari ematen:

Baztan'go dantzak gazteei erakusten, bertsolariak biltzen eta, batez ere, euskaraz idazten.

Gure gizona, 1962'an ausarta zen liburu bat argitara emateko; zorionez! Or dugu «Dirua galgarri», polizi-nobela ederra, Baztan'go giroan eta ango mintzairaz. Aingeru Irigaray Yaunak erran zuen:

«Irakurleak ikusiko duen bezala, interes haundienarekin segitzen zaio asmakizunaren koropilloari. Eskuara ere herrikoa erabiltzen du eta erreza baztandar izkiratzaileak».

Orain, bertze frutu berria ematen digu Izeta'ren euskaltzaletasunak: «nigarrez sortu nintzan» liburu. Liburu irakurtzean Baztan'go bizimodua ta nortasuna ditugu begien aurrean; or dabiltz, mugaldean, nekazari, artzai, kontrabandistak; or dabiltz lanean, elizan, tabernan, festetan; eta geienetan, Baztan'go mintzaira suabea, egilleak oroit-arazten digu guk ere bizitutako denbora.

Au dena Izeta'ri erraiteko ta zenbait berri geiago jakiteko, arekin mintzatu naiz.

—...?

—Ez da oraingo lana nere liburu au. Duela zortzi urte egona da zokoan. Joxe Anjel Irigaray egon zen nerekin eta nere lana ikusiz gero, argitaratzekoan pentsatu genuen, eta Gipuz-



Mariano Izeta Elizalde, euskal idazle baztandarra, orain «...nigarrez sortu nintzan...» eman diguna.

koa'ko Aurrezki Kutxa... An egon da lau urtez eta, noizbait, argitara eman dute. Iduri du arrakasta izan duela. Gaia, baztandar baten bizi tristea da; liburuaren izenburua, berriz, Basse-Nafarroa'ko kanta polit batetik artua dut: «Nigarrez sortu nintzan, nigarrez iltze». Badira liburuan gertatutako zenbait gauza ere.

—Nolakoa da, Mariano, Baztan'en, euskararen egoera?

—Badakizu ongi —ñardesten dit— aibat diren, egun, gure euskara zaarrari kontra egiten dioten etsaiak.

—Baiña, zerbait egin bear!

—Bai, ori bai; beti euskararen alde egin bear digu. Begira, orain berean, antolatu dut idatz-sariketa «Escuela Profesional», COU ta EGB'ko ikasle guzien tartean. Guztira, 283 idatz-lantxo bildu ditut, batez ere Lantegi Eskola'koak; baita alaxe, 87 lantxo EGB'koak ere.

Entzun dezagun Izeta yauna bere biotzeko asmoari jarraituz:

—Gauza ona litzake «PRINCIPE DE VIANA» asiko ba'litz baztandar gazteen idatz-lanak argitaratzen, aldi berean zenbait sari ematen; garrantzizkoa bait da politika gabeko Aldizkari ori etxe guzietan sartzea.

«Esker milla!» batekin bukatu nuen gure elkarrizketa. Bai; esker milla, Mariano, euskararen alde ainbertze lanengatik»

S. ERBITI

SUMARIO

1 **AURRERA GOAZ.** Después de un año, ¡adelante!

2 **EUSKALERRI'KO LEIOA.** Ventanal de Euskalerria. Noticias... frescas. «Amejoramiento». Grace Kelly. Televisión en euskera, etc.

5 **GIZENTASUNA.** La universal preocupación de la obesidad. MEDIKU ZAARRA.

6 **AITA SANTA EUSKALERRIA'N.** El Santo Padre entre nosotros.

7-10 **BERTSOLARIA. Bi liburu berri.** Comentario a los libros del P. Onaindia sobre Santa Teresa. Un estudio de EGI'TAR BI sobre Pello Errota. Y aportaciones de UXOLA y de P. HEGITOA.

11 **GAUZA BITXIAK.** Curiosidades, rarezas, regocijo. Una sección nueva: fotos y noticias que alegren el ojo y desarruguen el corazón.

12 **AGUR, ROTHSCHILD!** El Gobierno francés se ha metido con las grandes fortunas. El trabajo de IBALAN es como los viejos «Avisos a navegantes».

MAIXU BAT. Un maestro inolvidable: I. Olabeaga. Escrito por USOA con sentimiento.

13-14 **ERRIZ-ERRI.** Las apreciadas colaboraciones de los pueblos, casi con sabor de antaño. Gracias: ZOZOA, BELOKI, SEBEINO, IZETA. Nos pondremos al día.

15 **KIROLAK.** Aizkolaris: la gesta inolvidable de Mendizábal y Mindegia. JESUS GAZTAÑAGA

16 **M. IZETA JAUNAREKIN.** Con Mariano Izeta el escritor euskérico baztanés, cuando le ha nacido otro libro —otro hijo— con amor y con dolor por el euskera. S. ERBITI.

